Kapitalarentzat amnistia osoa!

GEXAN LANTZIRI

EUROPA, iduriz, [illegible] bizian desindustrializatu hasia da. Azken hamar urte hauetako lanmerkatuaren joera hor dago lekuko. Urtetik urtera langabezia gorago doa. Halabaina, Europan ere, Kapital haundiak *gero eta langile gutiago behar izanen du... eta* gero eta menduago.

Maastrichteko Hitzarmena Estatuen arteko batasun gisa aurkeztu zuten politikariek... errealitatean, Kapital haundiaren alderako egituraketa berri bat izan delarik.

Gaur egun, Estatuak berak diru-merkatu berri horren menpera eroriak dira. Eta ez da batere harrigarri, gaurko politikeroak ikusita! Duela dotzena bat urte oraino, Lan-Zuzendaritzaren baimena behar zuen enpresa batek langileak kanpo emaiteko. Eta kanporaketak onartuak ziren, enpresa zinez egoera txarrean zegoenean!... Orain aldiz, irabazi ederrak agerturik ere, enpresak kanpora ditzake langileak. Eta aintzin-abisurik gabe, gainera! Hala nola erabaki baitezake hilabetesariak apaltzea, lanpostuak atxikitzeko dela argudiatuz!... Sozialistak gobernuratuz geroztik ahultzen eta ia desagertzen joan diren sindikatuek izanen dute berriz langile interesak zaintzen nahiko lan.

Kapitala ainitzez emankorragoa da gaur egun, langilea esklaboa bezala kontsideratua den heren munduan. Eta beraz, legez ala legez kontra, kapitala harat doa. Kapital iturri hori ibai bilakatzen ari da...

Azken hauteskundeetan, Pasqua jaunak hauxe zioen bere propagandan: «Kanpoan den Kapitalak berriz Frantziara itzuli behar du, fiskal eta aduana amnistia oso eta orokor baten bitartez!» Aitormen polita bezain inoxenta, ene ustez! Zeren eta Kapital haundiak ez baitu, orainokoan segurik, politikariek bezala autoamnistia baten beharrik!

Mailebuak

TXILLARDEGI

HIZKUNTZA normaletan kanpotikako mailebuak sartu ohi dira. Eta hizkuntza bere osasunean baldin badago, mailebu horiek egokitu egiten dira, *bertakotu* egiten dira; eta gerora ezagutu ere ezinak dira. Nork soma dezake, hizkuntzalaria ez izatekotan, 'makila', 'gorputz' edo 'errota' jatorriz ere gureak ez direnik?

Baina hori proportzio-kontua da. Krisialdi baten ondorioz milaka hitz sartzen direnean, bertako fonologiaren modura egokitu beharrean, aldakaitz irauten dute. Hizkuntzaren gaitasuna agortua, ahitua dago; eta hitz arrotzak, ttentte gelditzen dira beren hartan.

Lehenengo liskarrean, bertako fonologia nagusitu da. Bigarrenean, aldiz, kanpotiko fonologia gailendu.

Hots, horretan, *estatistikak* du azkeneko hitza.

Frantzian gaur karpetobetoniko batek «Peugeot» esatekotan, «peyó» esaten badu; «baisser» eta «baiser» ez baditu berezten (larri xamarra dena!); «j'ai» esan beharrean, «chai» esaten badu; eta «bu» bota nahian, «bout» ateratzen bazaio, makina bat lan pasako du! *Arrotz* ibiliko da luzaz, gizarajoa.

Baina inori ez zaio bururatuko hau esatea: «es un francés de aquí». Berak aitortuko du aurrenik: «yo no soy francés»; eta ingurukoek baietsi egingo dute: «on vous comprend très bien, Monsieur: vous *n'êtes pas Français*. On voit bien que vous êtes *étranger*».

Eta, jakina, gauza bera gertatuko litzaioke Alemanian, Errusian, Japonen eta Thailandian.

Hemen ez. Hemen «los de aquí», gu baino 'vascoagoak' omen dira... «Tan vascos como el que más»!! Nahiz «egun-on» esaten ez jakin, eta Eratsun non dagoenik ere ez.

«Son de aquí». Que es más que ser «hemengoa». Jakina!

HEMEROTEKA

• EL PAIS

Izetbegovic, Madrilen

Atzo Alia Izetbegovic Bosniako musulmanen lehendakariak Madrilera egindako bisitaren ageriko helburua Espainiako agintariak presionatzea zen, hauek bere herriaren aurka dagoen arma enbargoa kentzea onar dezaten.

Guztien aurkako enbargoa indartu beharrean inolako eragozpenik gabe musulmanei armak emateak, lortu nahi denaren —gatazka amaitzearen— guztiz bestelako ondorioa ekarriko luke. Are gehiago, inolako kontrolik gabe hori orokortu egingo litzateke, halabeharrez 15 hilabeteko pairamenen ondorengo mendeku nahiak eraginda. Yugoslavia ohian, kontua gatazka geldiaraztea da, ez hori areagotzea. Beste edozerk bake ahaleginak hutsaldu eta espainiar, frantziar, britainiar, suediar eta ukrainiar *kasko urdinen* ahalegin eta sakrifizioa alferrikaldu egingo luke. Kontua ez da bosniarrek armen bidez beren buruak defenditzea azkenerako nahitaez beren derrota ekarriko duen gerra batean, bakea lortzera behartzeko nazioarteko presioa handitzea baizik. Bitartekaritzak porrot egin duela eta, beraz, aurkariek trabarik gabe elkar hilez gatazka konpon dezaten uztea da onartu behar den azkeneko gauza. Bere eraginkortasun ezagatik NBEk duen erantzukizunari ez zaio gerraren estimulu aktiboaren krimena gehitu behar.

EDITORIALA

FERRERES / LA VANGUARDIA

• Diario 16

NBE Somalian

(...) NBE gerrari inolaz ere ezin hel diezaiokeen erakundea da eta bere jardueren helburuak beti ere bakea lortzea izan behar du. Horixe ulertu da azken bolada honetan Nazio Batuen «operazio humanitarioak» agertu direnean. Orain, oinarrizko gogoeta errealista batek gerra baten erdian «humanitarioak» dituen esanahia eta garrantzia hartu behar ditu abiapuntu. Zalantzarik gabe, asmo hori noiznahi eta nonnahi goresgarria da, baita NBEren jardueren esparruan ere; baina alboko funtzio bat da. NBEren benetako zeregin humanitarioa gerrak amaitzea da, horiek nonnhai gertatuta ere. Beste eginkizun humanitarioak aldi baterako konponbideak baino ezin dira izan; behin-betikoa bestelakoa da. NBE ezin da Gurutze Gorria bihurtu, horretarako Gurutze Gorria bera baitago. NBE ez da laguntzarako erakunde bat, munduko parlamentu eta «gobernua» baizik eta bere betebeharra gerrak amaitzea da, ez horiek biguintzea.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Elkartasuna

Euskal Eskola Publikoaren Legeak eztabaida gogorra ekarri digu azken bolada honetan irakaskuntzaren mundura. Ikastolek bere pausoa eman dute. Onerako, edo txarrerako izan den geroak esango digu. Hala ere, lege horrek ez zien haiei bakarrik eragiten. Gutxitan hitz egin da lege horrek eskola publikoan izango dituen eraginez.

Oraingo honetan, langileoi dagokigunean, arazo larri bat plazaratu nahi izan dugu. Sare publikoan 5.000 (bost mila) irakasleko kolektibo bat bere lanpostua galtzeko zorian aurkitzen da. Interino eta ordezkoen kolektiboari gagozkio. Kolektibo hau Administrazio publikoak zatitu eta erabat baztertu du. Sindikatuak haren defentsan ez dira ados jarri eta bazter utzi dute. Eskola askotan, funtzionariek berek haietaz paso egin edota kokiltzen dute.

Ez dakigu administrazioak ikastoletako irakasleei zer eskaini dien, susmoak besterik ez baitugu. Haien egoera hobetzeko bada, bejondiela! Baina badakigu zer eskaini dion sare publikoko kolektibo honi: lehiaketa libreen bidea edo kalera, haien esperientzia eta lana kontutan hartu gabe. Sindikatuek, erabakietan partehartze eta erantzunkizun handiagoa erreibindikatzen duten horiek, ugazabaren papera jokatu dute eta zenbat sartu eta zenbat kanporatu diren harro-harro onartu dute, hori bai, negoziazio latza izan dela argudiatuta. Faltsu halakoak! Zergatik ez dute beste bide bat bilatu? Zergatik ez dira haien lanpostuen defentsan elkartu sindikalismo jatorrak agintzen duen bezala? Langabezia hedatzen ari den garai honetan, ez al du honek ahalegin hori merezi? Zergatik ez die administrazioak ikastola eta eskola publikoko irakasleei bide bera eskaintzen? Batzurentzat erabaki politiko hartzen bada, zergatik ez besteentzat?

Klaustro-honetatik gure lankide estimatuak diren interino eta ordezkoen kolektibo osoari gure elkartasun beroena adierazi nahi diogu.

ARTEKO GURE AMA ESKOLA PUBLIKOKO IRAKASLEEN KLAUSTROA

Artziniega (Araba)

GAIA JARRITA

Loren

Lorenek prueba egin nahi zuen
beste askoren antzera,
Bilbo aldera joan zen lehenengo
gero berriz Burgosera.
Zure sendia hementxe dago
ez dira ahaztu, bai zera!
Herri-minaren indarrak nola
deitu dizun bihotzera,
beso zabalik zai gaude denak
etorri lasai etxera.

JON AZPILLAGA

Egunkaria

Batzordea: [illegible] Legez Gordailua: SS 800/90

OJDk IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontselari Ordezkaria: IÑAKI URIA
Gerentea: FERMIN LAZKANO
Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI
Zuzendariordea: LUZIEN ETXEZAHARREIA
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA
Sustapena: NEREA AZURMENDI
Publizitatea: MAKI JOSE SARASA
Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS
Capitan Haya 1-2.a 28020 Madril ☎ 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 26

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabellioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Aniso Jakitunea 16-1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iraixe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo/ ☎: 423 90 62/ Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11